

Antxiñako fotografia

Parrokixako klaustrua

Hiruogeitertetik beherako oñatiar gutxi akordauko da Oñatiko parrokixako klaustruaren irudi zaharraz. Gauza jakina da **San Migeleko klaustrua**, beste batzuekin konparatu ezkerreko, bereziki dala, lorategi edo patixu baten inguruan egindako egon biharrian, erreka baten gainean moldautu daguelako. Baiña orain dakon itxuria ezta hain aspaldikua. Bueno, bai eta ez. Esprikau daigun, ba, misterio eta historia kurioso hori.

Elizako klaustro hau izan zan **Rodrigo Mercado Zuazolak** jaioterrian bere diruaz jaso eragin eben hiru obra ederretatik lehenengua; hurrengo bere hilobixa gordeko eben kapilla ikusgarria egittia aginduko eben, parrokixan bertan altara nagusixaren ezkerretara geraketan dana; eta azkenik, ezagunena seguru asko, Sancti Spiritus unibersidade bikaina. Famauna azkenengo hau baldin bada be, beste bixak be etxate atzian geldiketan edertasunian.

Hiru obra aparta honeik, nahiz eta errazak ez izan, urte gutxiren buruan gauzatu zittuain: 1527tik 1550 artian. Klaustroko lanen buru **Pedro Lizarazu** urretxuarra agiri da. Esan barri dogu ez euela eginkizun samurra izango: batetik, paraje haretan horretarako leku egogirik ez eguelako, bi zubi eraiki bihar izan ziran errekiaren gainean; eta bestetik, lanian ziharduain bittartian luraren estabilitate-arazoren bat euki euen eta zati batzuk halamoduz akabo bihar izan zittuain.

Baiña **harrigarrixena** zera da: erreka begira dagoen **leixo gotiko dotoriak estali egin ziran, tapau**, obria amaittu eta urte gutxira. Zergatik ete? Hor dago misterioa: hotza? Baiña klaustroaren eta elizaren artian hormak eta atiak egon ziran XX. gizaldirarte; kanpotik etorren atsa, usain txarra? Baiña sasue haretan eta askoz geruago be etzan kontaminazio haundirik Oñatiko erreketan.

Kontua da arku gotiko ederrok tapau egin ziralda eta era horretan iraun euen luzaruan. Guk geuk halaxe ezagutu gittuan, mutikotan klaustroaren bueltan dotriña ikasten gebenian. Orduan zorua zurezkua zan eta brillantia. Han ibiltten giñan, ahal zanian jakina, irristaka eta laban-labanka patinaitten. Aldaketa 1956tik aurrera etorri zan, **Reyes Korkostegi** Oñatiko alkatezara ailegau eta gutxira. Betelana bota ondoren, leixuak XVI. mendeko tamaina zabaldu ziran, eta gero jatorrizko itxuria emutiari ekin xakon. Hurrengo urtietan makiñatxo bat lan eta barrikuntza burutu zan parrokixako klaustroan eta elizan.

Albarritza baserriko **Esteban Urzelai** eta haren billobia **Jabier Bikuña** hargiñak hasi otsain klaustroko zeregiñoi. Laister agertu zan **Manuel Vasconcelos** be. Famauna izan zan **portuges** hau Oñatin hargin moduan nahiz beste arrazoi batzuetatik. Beste laguntzaille batzuk be jardun euen klaustroko obretan. Oñatin jaixuak ez izan arren, hemen urte askuan bizi eta bertan hil ziran hiru aittatuko dittugu: **Prontxio Berrondo** Romulo Azkueren koiñatua, Garagaltza Txikiko **Ixidro Sudepe** eta Antzuelas Etxabarriko **Juan Joxe Esnaola Mendaro**. Baiña orduan zein gerora Oñatin eta beste hainbat lekutan hargintza-lanetan gehixen eta artetsuen jardundakua puntuan jubilau dan Jabier Bikuña dogu.

J. E.

Argazkiza Rikardo Bastida arkitektoak ataratakua da XX. mendeko lehenengo hamarkadetan eta bere familiaren bittartez heldu xaku. Argibiderik gehixenak Jabier Bikuñak emun dosku. Eskerrik asko danoiri!

